

2020-21 ikasturtea

## HHko Guraso Batzordea: 2. buletina (2020.11.02)

HHko Guraso Batzordearen 2020-2021 ikasturteko bigarren bileran ondorengo gaiak landu dira.

### **Guraso Batzordearen aurreko bileran azaldutako hainbat kezka/zalantzar erantzuna**

- HH5eko hurrek ez dute musukorik erabili beharko Ikastolan sei urte betetzen joan ahala.
- Linoko jangelako txostenak Alexiaz jasoko dira: egunerokoak eta hilean behineko txosten orokorrak.
- Esmalteriako sarrera-irteeretak pilaketak. Zuzendaritza-taldetik pilaketak hiruzpalau minutukoak direla berretsi da eta, beraz, ez da sistema aldatuko.
- HH2ko hurrek bazkalostean telebista ikusten dutenaren harira, zuzendaritza-taldeak begiratuko du zein momentutan izaten den eta ea ekidin daitekeen.

### **COVID-19: egoeraren errebasoa**

HH2ko haur guztiak eta HH5eko bizikidetza-talde bat egon dira etxealdian. Ikastolaren kudeaketa eta irakasleen erantzuna egokiak izan dela iritzi da.

Egoera dena izanik, HH2 eta HH3ko bizikidetza-taldeak bina gelatakoak izatea erabaki da. Horrek Ikastolarako sarrera-irteerak musukoa jantzita egin beharra dakar. Orain arte maila guztiak bizikidetza-talde bakarra (HH2n bat eta HH3n beste bat) osatu du.

HH2 eta HH4ko guraso-bilera orokorrak ezin izan dira egin. Ahal bezain azkarren egiteko eskatuko zaio Ikastolari.

Ikasturte hasierako guraso-bilera orokorrak bi azpitaldetan egin dira. Guraso Batzordeak, ahal den neurrian, talde osoa elkarrekin egotea eskatuko dio Ikastolari.

Esmalterian aireztatze-sistema berezia jarri zuten berritu zenean. Leihoak itxita egonda ere aireztatzea egokia izatea bermatzen du sistema horrek. Hala ere, gauden egoeran egonik, leihoak irekitzea eskatuko da.

### **Linoko obra**

2021eko martxoan ekin beharko litzaieke Lino berritzeko lanei. Momentu egokia den galdetuko zaie gurasoei eta irakasleei, eta bideragarria den aztertuko du Ikastolako zuzendaritzak.